

DEIALDIA

Alimentaria 2018

Bartzelona

Egunak: 2018ko apirilak 16tik 19ra

Lekua: FIRA Bartzelona -
Gran Viako esparrua

Maiztasuna: Bi urtez behin

Norentzat: Elikadura industriako
profesionalak, oro har
(supermerkatu kateak,
banatzaileak, handizkariak
eta txikizkariak)

Izen-emate epea:
2017ko irailaren 30a

Azokaren web orria:
www.alimentaria-bcn.com

Informazio gehiago: Tel.: 94 470 65 00

Nora Goitia/Lucía de Artaza:
agro@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera
Parte hartzeko baldintzak
Parte-hartze eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea
Eskainitako zerbitzuak
Izen-emate formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **ALIMENTARIA 2018** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du, HAZI Fundazioaren bitartez.

ALIMENTARIA 2018 azoka Bartzelonan izango da, **2018ko apirilaren 16tik 19ra.**

Azokaren izaera

Alimentaria 2018

Erakusketa-eremua: 83.410 m²

2016ko erakusketariak: 66 herrialdetako erakusketari

2016ko bisitariak: 140.524 bisitari profesional 157 herrialde ezberdinetatik etorritakoak

Edizioa: 22a

Azokaren web orria: www.alimentaria-bcn.com

Alimentaria Barcelona Espainiako Elikagai eta Edarien Nazioarteko Azoka garrantzitsuena eta munduko lehendabizikoetakoa da. Erreferentziatzko ekitaldia, bere arrakastarako alderdiak izanik eskaintzaren espezializazio gorenarekin, berrikuntza eta kanpora begirako bokazio nekazina.

Aurreko edizioei dagokienez, Alimentaria 2018 azokak enpresa erakusleek parte hartzeko aukera antolatu eta, aldi berean, areagotu egin du, ardatz berrietan eta kontsumorako joera berrietan oinarrituta.

2018an, ondorengo hauek izango dira pabiloiak:

- Multiple Foods
- Expoconser
- Intervin
- Intercarn
- Interlact
- Restaurama

Eusko Jaurlaritza Multiple Foods (Lands of Spain), Expoconser eta Intervin pabiloietan egongo da.

Alimentaria azokak, gainera, hainbat ekitaldi paralelo eskaintzen ditu. Alde batetik, *The Alimentaria Hub*, eta bestetik *The Alimentaria Experience*, zeinetan berrikuntzari eta nazioartekotzeari lotutako ekintzak egongo diren, eta show gastronomikoak, besteak beste.

ERAKUSKETA-EREMUA: 83.410 m²

2016KO ERAKUSKETARIAK: 66 herrialdetakoak

2016KO BISITARIAK: 140.524 bisitari profesional 157 herrialde ezberdinetatik etorritakoak

AZOKAREN WEB ORRIA: www.alimentaria-bcn.com

Parte-hartze baldintzak

Joateko konpromisoa

Euskal Herrian egindako produktuak

Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartzen dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek bakarrik, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman**. Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standeko arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku liberrik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero. Halaber, enpresa batek stand-a abandonatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak –presentzia bateratuaren antolatzailea den heinean– zigorren bat jasotzen badu azoka antolatzaileen eskutik, zigor hori berehala jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpresari.
- Azoka amaitutakoan, produktuguztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eta entregatu, organizazioaren argibideak jarraituz.

Parte-hartze eredua eta kostua

Parte-hartze eredua

2018ko edizioan, 700 m² inguruko eremua edukiko du Eusko Jaurlaritzak, eta kalitatezko elikagaiak eta edariak ekoizten dituzten Euskal Elikadura Industriako enpresak hartuko ditu.

Eusko Jaurlaritza ondorengo pabiloi hauetan egongo da:

- MULTIPLE FOODS (Lands of Spain)
- EXPOCONSER
- INTERVIN

Parte hartzeko hiru aukera eskainiko dira:

- **BANAKAKO erakusmahaia.**
- **Erakusmahai PARTEKATUA:** eremu komuna enpresen artean bereizgailurik gabe. Stand eredu horrekin parte hartzen duten enpresek kontuan eduki behar dute lekua dela-eta ezingo dutela euren tokian hozkailu-bitrinarik jarri, ezta dekorazio-elementu osagarriarik ere.
- **Erakusmahai BIKOITZA.**

Parte-hartze eredua eta kostua

Parte-hartze kostua

ALIMENTARIA 2018 azokan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktuak transformatzen eta komertzializatzen dituzten enpresen parte-hartzea sustatuko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak.

Jarraian, parte-hartze kostuaren gaineko diru-laguntzen inguruan egingo den sailkapena adieraziko da.

1 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko lehengaiez hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

Enpresa horiek **%70eko** diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

1.009,20 € + %21 BEZa = 1.221,13 €

Banakako erakusmahaia:

2.018,40 € + %21 BEZa = 2.442,26 €

Erakusmahai bikoitza:

4.036,80 € + %21 BEZa = 4.884,53 €

2 MOTAKO ENPRESA

Euskal Herrikan kanpoko lehengaiez hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produktorik ez badago, betiere.

Enpresa horiek **%50eko** diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

1.682 € + %21 BEZa = 2.035,22 €

Banakako erakusmahaia:

3.364 € + %21 BEZa = 4.070,44 €

Erakusmahai bikoitza:

6.728 € + %21 BEZa = 8.140,90 €

3 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza **%30ekoa** izango da, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

2.276,92 € + %21 BEZa = 2.755,07 €

Banakako erakusmahaia:

4.553,84 € + %21 BEZa = 5.510,14 €

Erakusmahai bikoitza:

9.107,68 € + %21 BEZa = 11.020,30 €

Oharra: stand bikoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.

Parte-hartze kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- %50 + BEZa (%21), izena emateko unean eta leku erreserba gisa.
- Gainerakoa, azoka baino 60 egun lehenago ordainduko da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate fitxa, behar bezala beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: 2017ko irailaren 30an

Parte hartzeko interesa baduzu, lekua mugatua denez, izena-emate formularioa bete eta ordainagiria ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen dugu emailuz: **agro@camarabilbao.com**

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

1. Izen-emate formularioa bete

Informazio horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Izen-emate formularioa



2. Gunea erreserbatzeko kuotaren ordainagiria

(kostuaren %50 + %21 BEZ)

Ordainagiria emailuz bidali behar da: **agro@camarabilbao.com**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

KONTZERTUA: "Enpresaren izena + ALIMENTARIA 2018"

KONTU ZENBAKIA: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bic-a: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: 2017ko irailaren 30ean

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI FUNDAZIOAren Finantza Sailak bidaliko du **dagokion zenbatekoaren faktura parte-hartzea egiaztatu ondoren.**

Bigarren zatikako ordainketa azoka baino 60 egun lehenago egingo da.

GARRANTZITSUA:

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea; Sailak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertze eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du aldez aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.

Eskeinitako zerbitzuak

- 1) Eremuaren kontratazioa
- 2) Euskadiko stand-aren dekorazioa
- 3) Euskadiko stand-a mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)
- 4) Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Eremuaren kontratazioa

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan banatuko da.

Euskadiko stand-aren dekorazioa

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko altzariak berdinak izango dira Euskadiko stand-aren erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

- **Banakako erakusmahaia:** mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia, hotz kamera (erabilera komunitarioa).
- **Erakusmahai bikoitza:** 2 mahai eta 8 aulki, 2 erakusmahai, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia, hotz kamera (erabilera komunitarioa).
- **Erakusmahai partekatua:** erakusmahai txikiagoa, enpresen arteko horma bereizlerik gabe, bileretarako gune eta biltegi partekatuarekin modalitate honetan elkartzen diren enpresa guztientzat.

Euskadiko stand-a mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, stand-a egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du, esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Eskeinitako zerbitzuak

- 5) Kopen zerbitzua
- 6) Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk
- 7) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 8) Euskadiko stand-aren erakusleen katalogoaren edizioa

Kopen zerbitzua

Kopen alokairua erakuslearen kontu joango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko.

Intervin Pabiloian, Sailak kopak garbitzeko gune bat jarriko du enpresek erabiltzeko, betiere lekurik badago.

Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko, non jardunaldiaren erakusle guztiak agertzen diren (izena emateko formularioan emandako datuak agertuko dira).

Euskadiko stand-aren erakusleen katalogoaren edizioa

Eusko Jaurlaritzak katalogo promozional bat prestatuko du ALIMENTARIA 2018 azokara joaten diren erakusle guztiak erakusteko. Enpresa bakoitzetik datu hauek jasoko dira: Enpresaren logotipoa, enpresaren edo produktuaren argazki adierazgarria jpg formatuan, izena, harremanetarako pertsona, helbidea, telefonoa, faxa... baita ere erakutsiko diren produktuen zerrenda zehatza (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).

Eskeinitako zerbitzuak

10) Azokako promozio jarduera

11) Negozio aukerak

Azokako promozio jarduerak

Azokaren esparruan programatzen diren jarduera, foro, hitzaldi eta tailer ugari egiten dira. Gainera, Alimentariak horietan guztietan pare hartzeko aukera ematen dizu, ikusgaitasun eta nabarmentasunik handiena lortzeko. Jardueretako batzuk dira: The Alimentaria Hub, Vinorum, Olive Oil bar, The Alimentaria Experience. Horren guztiaren berri zehatza emango da.

Negozio-aukerak

Alimentaria azokak hainbat tresna eskaintzen ditu topaketaren presentzia optimizatzeko, harreman komertzialak eta aldebiko bilkurak egitea errazten dituzten ekintzen bitartez, erakusleen eta nazioarteko erosleen arteko lankidetzak, banaketa eta berrikuntza bultzatzeko.

Horrekin, nekazaritzako elikagaien industria atzerrian lehiakorragoa izatea lortu nahi da. Ekintza interesgarri guztien gaineko informazio zehatza emango da.